

Goierriarra

287. zenbakia

2005eko irailak 23

TXONDORRA ZERAINEN



www.antzizar.net
tel. 943 887900

Irabazteagatik, gozatzegatik,
partekatzeagatik,... **nahi duzunagatik**

mugitzen zaituena hura ala bestea
izanik ere eutsi zaintzeari





ITURGINTZA - KALEFAZIOA - GASA
BAINU ETA SUKALDEKO INSTALAKUNTZAK
ETXEBIZITZEKO AIRE EGOKITUAK
BERRIKUNTZA LANAK
GREMIO GUZTIEN ARDURA



SUKALDEKO ETA
BAINUKO ALTZARIAK



BULEGOAK-LANTEGIA
USABAL, 11-A
TOLOSA
Tel.: 943 672 620



ERAKUSKETAK:
SAN FRANTZISKO, 10
TOLOSA
Tel.: 943 653 307



Medikuntza eta zirugian lizentziatuak:
I. Fdez Ornaburu Dra.
(Medikuntza estetikoan masterra)
A. Ramirez Baigorri Dra.

- laser depilazioa
- aurpegiaren gaztetzea
- peeling-ak, betetzeak
- toxina botulinikoa: zimurrak
- aurpegi eta gorputzeko mesoterapia
- gizentasuna, zelulitia, masajeak
- azal azpiko terapia: LPG

Kursal
ZENTRO MEDIKUA
943 88 22 51
Garmendia Otaola, 7 - behea
BEASAIN



R.P.S.:32/04

BERTSOTAN

Ikastola



Jon Aldasoro

Oporrak azkar pasatu dira
Ikasturtea gainean
Orain saiatu beharko gera
buru belarri lanean
alfertu ere egin gera gu
oporrak ziren einean
alferkeria utziko dugu
aurten goz aldamenen
alde earren egoten nintzen
hamabietan ohean

zazpi t'erdiak ak iritsi dira
"jaiki hai Jon gosaltzera"
bost minututik bost minutura
aita datorkit atera
moitu Jon joan beharrean haiz
zortziretako klasera
oso gogorra egiten zaigu
ikasturte hasiera
gogo gehiokin jaiki ohi nintzen
perretxikuak biltzera

Doinua: mutil koxkor bat

Goierritarra

HAMABOSTEKARIA

Argitaratzailea:

Goierritarrak Kultur Elkarte

Urbialde plaza, 7 - behea
BEASAIN

Posta elektronikoa:

goierritarra@topagunea.com

Telefonoak:

Erredakzioa: 943 88 96 12

Publizitatea: 647 319 757

Zuzendaria: Loinaz Agirre

Erredakzioa: Lorea Iparragirre

Maketazioa: Mikel Albisu

Inprimaketa: Gertu (Zubillaga
9. Oñati)

Tirada: 7.000 ale

ISSN: 1132-0907

Lege gordailua: SS-926/89

Frankeo kontzertatua: 37/76

**Goierritarrak ez du bere
gain hartzen derrigorrez,
aldizkarian adierazitako esanen
eta iritzien erantzukizunik.**

AURKIBIDEA

4. Iritzia: Inazio Usarralde

5. Ingurugiro txokoa: Fossilak:
aintzinako faunaren aztarna7. Errezeta: Hegaluzea plantxan
Aholkua: Aldaketa pentsioetan

8. Kate motzean: Irati Aldanondo

9. Argazki erreportajea: Ordiziako
azoka berezia

14. Elkarrizketa: Berritzegunea

18. Elkarrizketa: Tatoo Eki

21. Non zer?

22. Garai batean...: Txondorra
Zerainen

24. Debaldeko iragarkiak

30. Argazki zaharra



Goierritarra diruz laguntzen duten erakundeak:

Altzaga, Arama, Gabiria eta
Itsasondoko udalak



Gipuzkoako Foru Aldundia

Goierritarra Goierritarra kanpo
jasotzeko tarifak:

Hego Euskal Herria eta Espainia: urtean 15 euro

Ipar Euskal Herria eta Europa: urtean 27 euro

Europaz kanpo: urtean 39 euro



Inazio Usarralde

“Amaaaa, gaitz berrie daukeeeet!”

Hau posible ote da, aizue!? Opor osteko lehendabiziko egunetan ez dut besterik entzun bazter guztietan. Lasai, ez naiz ari Irakeko triskantzaz, ez eta *Katrina* urakanak AEBetan utzi duen panoramaz. Hori baino kontu *larriago* batetaz ari naiz: opor osteko sindromea. Itxura denez, XXI. mendeko izurrite larriena bihurtzeko bidean da gaixotasun berri hau (lanera joan nahi ez izatea berria al da?). Ez da ez txantxetako, ez us-te! Honezkero amerikarrak hasiak dira txertoren baten bila...

Baina, zertaz ari gara? Beno, bada, koka gaitzen: irail hasiera honetan behin eta berriz entzun dugunez, gure arteko hirutik bat opor osteko sindromeak jota dago. Dirudienez, ahuldadea, itolarria, lo hartzeko arazoak edo *letxe txarra* azalazalean ibiltzea dira sintoma ohikoenak.

Hori jakinda, hainbat galdera pilatzen zaizkit buruari eraginda: berdin-berdin pairatzen ote dute opor osteko sindromea hilean 6.000 euro irabazten dituen exekutiboak eta hilaren azkenera iritsiko al den edo ez den beldurak airean bizi den langileak? Ez zait iruditzen...

Martxa honetan hemendik urte gutxira ikusiko dugun beste kontu bat: oporretara joan aurretik txertoa hartu beharko dugu, orain urrutiko herrialdeetara goazenean hartu ohi dugun antzera. Bai, bai... dagoeneko asmatu ez badute aurki asmatuko dute eta Osakidetza kanpainak egingo ditu urtero, gripearena bezalaxe.

Eta pittin bat umore beltzari ere leku egingez, pentsa une batez hemendik 5 urteko egunkarietan nolako titularrak irakurriko ditugun: *Urlia opor osteko sindromea*

ak jota bil da, Opor osteko sindromeak jotakoen kopuruak ikaragarri egin du gora aurten...

Eta bueltan-bueltan ba al dakizue non bukatuko duen honek guztiak? Ba, diotenez, Ertzaintzak kontrolak ipini beharko ditu bide ertzetan, eta baimendutako opor osteko sindrome tasa gainditzen duenari ez diote lanera itzultzen utziko, eta orduan lantegietako nagusiek elkarte bat osatuko dute: Opor Osteko Sindromearen Ondorioz Kaltetutakoen Elkarte (OOSOKKE). Eta zein izango da OOSOKEren lehen erabakia? Bada, oporrak hartzea debekatuko dute! Bai, bai... oporrak hartzeak ekonomiari dakartzkion kalte izugarriak ikusirik ez diote gehiago inortxori hartzen utziko.

Hau da, bada, gure munduak darabilkien martxa. Sarri esaten dugun bezala *gure zabarrek burua jasoko balute...* Hauentzat, gainera, bat izan edo bestea izan sindromea, *oporretako edo barkazio-etako gaitza* izango da dena eta kito. Hara gure auzoan sarri-sarri ikusiko dugun irudia, erreka ertzeko bankuan eserita daudela Bixentak Joxe Bernardori horrela esanez:

-Ba, gurek Saloun izan die ta oporretako gaitzak jota bueltau, aizui.

-Etzazu esan! Hoi da gauzea, hoi... Ta geroz ta gehioi aitzen zaie halako oporretako gaitzakin dola, beste hue berdin... -Joxe Bernardok.

Adiskideok, kontuak kontu laster oporrak gabe utziko gaituzte, baina lasai, orduan ere asmatuko dugu sindrome berriren bat eta. Bien bitartean, langabetuok aprobeztatu orain atseden hartzeko, behin lanean hasitakoan ez baituzue opor egiteko tarterik izango. Eta, oster, oporrak ez hartzen ohituta daudenak, esaterako baserritarrek eta, mesedea orain ere! Oporrak kenduta ere ez dute askorik igarriko horiek...

Ari garela, ari garela denok ez bagara seko zorutzen...

Irail hasiera honetan behin eta berriz entzun dugunez, gure arteko hirutik bat opor osteko sindromeak jota dago.

San Inazio, 14 BEASAIN
☎ 943 889 390

Garagartza pl., 1 ORDIZIA
☎ 943 805 327

San Franzisko, 8 TOLOSA
☎ 943 650 239

Lirain

Lurrindegia eta opari gaiak

PSIKOLOGI KLINIKOA



Jose Ramon Pato Prieto
Psikologian lizentziatua
Elkargokide zenbakia: E-2644
RPS: 42001

AURRE ZITA ☎ 943 887 221 ☎ 610 020 041
JM Arana, 1 - 2. esk. esk. BEASAIN

Helduen,
umeen,
bikoteen eta
sexologi
tratamenduak

Fosilak: aintzinako faunaren aztarna

Orohar, fosila, arroketan agertzen den aspaldiko izakiaren aztarnari esaten zaio. Fosil gehienak, dagoeneko desagertu diren izakien hondarrak dira eta beraz, iraganeko biziaren lekuko ditugu.

Baina nola sortzen dira fosilak? Fosilak, fosilizazio deritzon prozesuaren bidez sortzen dira, hau da, biziduna mineral bihurtzearen ondorioz.

Bizidunak hil ondoren lurzoruaren gainean metatzen joaten dira eta denbora pasa ahala lurpean geratzen dira. Lurgainean nahiz lurpean daudelarik, inguruko hainbat faktoreren eragina jasaten dute, beste bizidun batzuen (bakteriena adibidez) zein atmosferako eragileena (haizea, euria...) esaterako. Hauek hainbat eraldaketa sortzen dituzte hilotzengan. Eraldaketa batzuek hilotzen deskonposaketa eta suntsipena eragiten badute ere, beste batzuek bizidunen zatien kontserbazioa eta iraupena bermatzen dituzte. Hori dela eta, beharrezkoa da kontserbazioa dakarten eraldaketak lehenbait lehen gertatzea bizidun-hondar hauek urte askoan zehar iraunarazteko.

Kontserbazio-eraldaketa hauetan, bizidunaren zatia deskonposaketaren aurrean erresistenteagoak diren sustantziez ordezkatzeko dira biziduna mineral bihurtuz. Beraz, fosila, bizidun itsurako mineral bat dela esan genezake.

Bizidunen atal ezberdinak, deskonposaketaren



Nolakoa zen Ataungo fauna duela 144-65 m.u?

Ataunen topatuko ditugun fosilak, kretaziko garaian (duela 144-65 milioi urte) sortu ziren arroketan dauden zenbait animalirenak dira. Garai honetan, Ataun sakonera txikiko itsaso epel baten azpian zegoen. Hori dela eta, bertako koral arrezifean bizi ziren animalia itsastar batzuen fosilak ditugu ikusgai.

aurrean erresistentzia-maila ezberdina agertzen dute. Orohar, zati biguinak (muskuiluak eta landare-zatiak adibidez) erresistentzia txikia dute deskonposaketaren aurrean eta beraz, berehala deskonposatuak izaten dira. Zati gogorak aldiz (maskorak eta hezurak adibidez) erresistentzia handiagoa agertzen dute eta horregatik ugariagoak ditugu honelako egiturak fosilen artean.

Gure inguruko mendietako harkaitzetan erreparatzen badugu, bizidun itsastarren hainbat eta hainbat fosil topatuko ditugu han hemenka. Aztarna hauek dira gure lurraldearen iragan itsastarren testigu.

Kretaziko garaian (duela

144-65 milioi urte), Euskal Herria sakonera txikiko eta erliebe leuneko itsaso epela zen. Klima berriz, egun tropikoetan dutenaren antzekoa zen, beroa eta euri-tsua. Garai hartan, Euskal Herria estaltzen zuen itsasoa higidura gogorra burutu zuen itsas ertzean. Modu honetan, itsasoan sedimentatuz zihazozen materialeak asko ugaltu ziren. Baldintza hauetan, itsas-hondoa arinki kolonizatu zuten hainbat organismo bizidunek koral-arrezifeak eratuz. Egoera honen lekuko ditugu egun gure mendietako harkaitzetan txertaturik dauden koral, belaki, barraskilo zein itsas-izarren fosilak.

Oihana Zubizarreta

JAKIN BEHARREKOAK

Animalien aldeko ekintzaileak soka motzean. Protesta ekintzak zigortzeko lege-egitasmo batek zalaparta sortu du Britainia Handian. Egitasmo horren arabera, animalien aldeko taldeen ekintza ez-legezkoak zorrotz zigortzeko lege bat atera nahi dute. Bost urtera arteko kartzelazigorra izan lezake animaliekin ikertzen duten zentroei kalte ekonomikoak eragiten dizkionak, edo ikertzaileak eta langileak beldurtzen dituenak. Animalien aldeko taldeak kezkatuta daude lege honek ekintzaile bakezaleei kalte egin diezaikeelako, eta boikota sustatzea legez kanpo gera daitekeelako. Animaliekin ikertzen duten zentroek, berriz, lege honekin lasaiago biziko diren itxaropena dutela diote.

Biodibertsitatea geroz eta okerrago. Ez da kontu berria, baina bai larria. Nazio Batuen txosten baten arabera, biodibertsitatea inoiz baino azkarrago ari da galtzen. Dirudienez, espezieak mila aldiz azkarrago ari dira desagertzen gizakiaren eraginez.

LIBURUA

"Otro mundo es posible si..." Icaria/Intermón Oxfam, Susan George, 2004. Mundua aldatzeko, Susan Georgeren ustez, ekintzailearen lehenengo betebeharra mundua nola funtzionatzen duen ezagutzea da eta baita mundua zapaltzen duten instituzioak ezagutzea ere: Munduko Merkataritza Erakundea, Munduko Bankua... Liburua langintza horretarako oso lagungarria da.

Zatoz nirekin kotxean!

Aurreko aleko artikuluan aipatzen genuen bezala, mugikortasun iraunkorrek garraibideen arrazoizko erabilera bat lortzeko ekintza eta prozesuak hartzen dituzte bere baitan. Honela, eta mugikortasun iraunkorren bidean pausu bat eman asmoz, Goiekik Goierriko 18 udalekin eta eskualdeko hainbat enpresen oniritziarekin batera, autoa konpartitu edo elkarbanatzeko aukera ematen duen zerbitzua jarriko du martxan datorren urriaren 1etik aurrera.

Zerbitzu hau, tresna informatiko bat da, autoa konpartitu nahi dutenen topaketa errazten duena. Azken batean bilatzaile bat da, zuk egiten dituztuzun bidaiekin bat datozen ibilbideak egiteko asmoa duten pertsonekin harremanetan jartzen zaituena. Nolabait esateko "autostop" organizatu baten modukoa da.

Aplikazio honi esker kontaktuak bilatu ahal izango dituzu, bai noizbehinkako bidaietarako (oporrak, lana, kongresuak, etab.), bai ohiko desplazamenduetarako (unibertsitatera joateko, lanera, etab.) ere. Zu bezala era ekonomikoago eta ekologikoago batean bidaiak egin nahi dituzten guztiei zuzendutako tresna bat da.

Tresna honetarako sarbidea prest egongo da urriaren 1etik aurrera www.goierri.org/goieki eta www.compartir.org webguneetan.

Ekimen honekin lortu nahi diren helburuak:

- Goierritarrei beraien bidaietarako iraunkorragoa (sostenible) den beste alternatiba bat ematea.
- Autoaren erabilerak eragiten duen kutsadura eta energia kontsumoa gutxitzea.
- Espazio publikoaren erabilera hobetzea.

Ekimen berriak: Car-sharinga

Pixkanaka, auto pribatuaren erabilera aldatzera zuzendutako ekimen berriak datoz Europa aldetik. Ekimen hauetako bat da Car-Sharing deitutakoa. Momentuz gurerira iritsi ez den arren, Bartzelonan martxan da

Car-Sharinga. Azken batean helburua, hirietan mugikortasun inteligentea deituko da lortzea da: hau da, desplazamenduak oinez, txirrinduz eta garraio publikoan egitea eta autoa behar denean bakarrik erabiltzea. Honek trafikoaren gutxitze garrantzitsu bat ekarriko luke, eta beraz, baita kutsadura eta energia kontsumoaren murrizpen bat ere.

Car-sharingean hiritar talde batek auto flota komun baten erabilera pribatua egiten du, hau da, elkarte bateko bazkide eginez eta hilean kuota bat, kilometraia eta erabilitako denboratik portzentai bat ordainduz, auto bat erabil dezakezu behar duzunean (erosketak etxera eramateko, bidai jakin baterako, oporretarako, etab.). Autoen mantenimendu, konponketa eta aseguruia elkartearen kontu joango da. Autoaren jabea kolektiboa da



eta ez norberarena.

Sistema honen bidez auto portzentai altu bat ekingo genduke: Europar autotoek denboraren %95-a geldirik ematen dute eta. Sistema honek hainbat abantaila dauka (Suitzako enpresa batek eginiko azterketaren arabera): urtean familia-ko 1.800 eta 2.400 arteko aurrezpena, %72an gutxituko litzateke eginiko kilometro kopurua, %57an erregai kontsumoa eta auto konpartitu bakoitzeko 5 edo 6 auto pribatu kentzea.

Bestalde, Car-sharingaren erabiltzaileek deskontuak dituzte garraio publikoan. Alemanian honelako 60 elkarte daude, guztira 60.000 erabiltzailetik gora dituztenak. Suitzan ere, proiektu hau 90. hamarkadaren hasieratik da martxan eta egun, 45.000tik gora da erabiltzaileak. Bartzelonan hasi berria da ekimena (iaztik da martxan), eta eginiko estimazioen arabera, biztanleen %20-a izan daiteke Car-sharingaren erabiltzaile potentzial.

Goiekik Goierriko udalekin eta hainbat enpresen oniritziarekin, autoa elkarbanatzeko aukera ematen duen zerbitzua jarriko du martxan urriaren 1etik aurrera.



MONDRAGON ENPRESA ZIENTZIEN FAKULTATEA
UNIBERTSITATEA FACULTAD DE CIENCIAS EMPRESARIALES

masterak

- Enpresen zuzendaritzako masterra – MBA
 - Zuzendaritza Orokorra
 - Finantza Zuzendaritza
 - Marketing Zuzendaritza
 - Garraio eta Hornikuntza Katearen Kudeaketa
 - Kooperatibitatea
 - Berrikuntza eta Ekintzailetasuna
 - Kirol Entitateen kudeaketa eta zuzendaritza
- Bankan eta burtsan masterra (birtuala) – MBB
- ERP enpresa informazio sistemen masterra – MSI

graduatu-ondoko ikasketak 2005-2006

informazioa

Enpresa Zientzien Fakultatea
Onatiko Campusa
Larraña, 16
20560 Oñati
Tel.: 943 71 80 09

postgrado@eteo.mondragon.edu
www.eteo.mondragon.edu

www.mondragon.edu



SUKALDEAN



Jabier Matxain
Oteñe jatetxea
Gaintza

Osagaiak

- Piper berdeak
- Pikillo piperrak
- Hegaluzea
- Tipula
- Gatza
- Oliba olio

Hegaluzea plantxan

Lehenengo piper berdea eta tipula txikitu eta zartagian egin behar dira. Pixka bat gorritutakoan sutatik kendu.

Horren ondoren, hegaluze xerra bat plantxan gorritu bi aldeetatik eta bandeja batean jarri.

Hegaluzea gorritu eta gero, gainean aurretik egin dako tipula, piper berdeak eta pikillo piperrak jarri.

Bandejan hori guztia prestatuta dugunean, oliba olio bota behar zaio gaineretik eta labean sartu behar da. Hala ere, aipatu behar da labea lehendik berotuta egon behar duela hegaluzea sartzerako. Horrela, bandeja sartu eta hamar edo hamabost minuturen tarteetan hegaluzea jateko prest egongo da. Labetik atera eta bazkaltzeko prest!

Aldaketa pentsioetan

Gizarte Segurantzako pentsio sistemak bateragarritasun edo konpatibilitate arau zorrotzak mantendu izan ditu orainartean. Hau dela eta, pentsio bat kobratzen zuen pertsona batek, sarritan, ezin izango zuen beste mota bateko pentsioaren onuradun izan. Hau gertatu izan da orainartean SOVI pentsioak eta alarguntasun pentsioarekin. Ezin bateratze hau dela eta aukeraketa egin beharrean gertatu dira hainbat eta hainbat alargun.

2005eko irailaren 1az geroztik ordea, bateragarriak dira SOVI pentsioak eta Gizarte Segurantzako alarguntasun pentsioak. Horrela dio ekainean atera zen 9/2005 Lege berriak.

SOVI pentsioak (Zahartzaroko eta Ezintasunetarako Derrigorrezko Asegurua) garai bateko Zahartzaroko eta Ezintasunetarako Asegurura kotizatu edo "Retiro Obrero" bezala ezagutzen zenean afiliatuta zeudenei eta gizarte segurantzako beste pentsioen bat jasotzeko biderik ez dutenei errekonozitu izan zaizkie.

Orain arte, SOVI pentsioak (zahartzaroko, ezintasuna eta alarguntasuna), elkarren artean bateragarriak ez izateaz gain, Gizarte Segurantzako gainerako pentsioekin ere bateraezinak ziren. Era honetan, pentsio bat baino gehiago jasotzeko eskubidea zuen edonork, bat aukeratu beharrean izaten zen.

Bateraezintasun honen arrazoia bere garaian SOVI pentsioak beste inolako pentsiorik jasotzeko aukerarik ez zutenei laguntza gisa sortu zirelako izan zen.

Egoera hau aldatzearen arrazoia zein izan da?

Pentsio hauek zenbateko oso txikikoak ziren eta bat baino gehiago jaso ezin zitekeenez, "adineko jende multzo esanguratsu baten, emakumeak batik bat, txiro-tze jarrai bat ari zen ematen", legeak bere sarrerako adierazpenetan dioen bezala. Egoera honi irtenbide bat eman nahian egin da hain zuzen arau berri hau, modu honetan, SOVI pentsioak Gizarte Segurantzako

alarguntasun pentsioekin bateragarriak izatera pasatu direlarik. Gainerako bateraezintasunek bere horretan jarraitzen dute.

Beraz, hemendik aurrera eta beti ere bi pentsioak kobratzeko baldintzak betetzen dituen edonork ez du bata edo bestearen artean aukeratu beharrik izango, biak jasotzeko aukera izango du. Hori bai, gehienez bi pentsioen artean ezin izango da hilabeteko 877,42 euro baino gehiago jaso.

Beraz, jakinaren gainean geratzen zarete egunen batean aukeraketa egin beharrean gertatu zaren guztiok. Legeak, epe konkreturik ez du ezartzen eskaria egiteko, hori bai, bateragarritasun honek bere ondorioak, eskaria egiten den hurrengo hilabeteko lehen egunetik besterik ez ditu izango, aurretiko pentsioak kobratzeko biderik ez delarik izango.

Eskari hau egiteko, gizarte segurantzako edozein bulegoetara zuzentzea besterik ez duzu, orain arte egin den bezala.

AHOLKUA



Monika Larrañaga
Gertu aholkularitza



“Komodoa da nagusiarentzat eta txakurrak oraingoz behintzat gustura egon dira hemen”

Zergatik ireki duzu txakurrak garbitzeko lekua?

Ni albaitaritza ikasten ari naiz eta pentsatu nuen herriaren-tzako zerbitzu polita izango litzatekeela. Gainera, gero eta txakur gehiago dago pisuetan. Leku honek, txakurra garbitzeko komoditatea ematen die jabeei.

Makina honek ematen duen zainketa nolako da?

Kasu honetan txakurraren garbitasuna zaintzen da. Makina honek txakurrak garbitzeko ura eta xaboia botatzen ditu, parasitoak kentzeko xaboi berezi bat ere bai eta lehertzeko aukera ere ematen du. Aipatu behar da, xaboi horiek txakurrak garbitzeko bereziak direla. Horretaz gain, behin txakurra garbitzeko lekutik atera ondoren, makina bera desinfektatu egiten da, badaezpada ere.

Txakur bat edukitzea moda al da?

Egia esan gero eta txakur gehiago ikusten dira kalean. Lazkaon bertan 400 txakur daude zentsatuta. Baina esan behar da txakurrak konpainia egiten duela benetan. Jende askok txakurra ehizerako edota dibertsiorako erabiltzen du.

Txakurra zer da zuretzako?

Niri orokorrean animalia guztiak gustatzen zaizkit. Baina horrelako leku bat jartzeko, txakurra iruditzen zitzaigun egokiena. Izan ere, gaurko familietan txakurra etxeko beste bat bezala tratatzen da eta zainketa ere horrelakoa ematen zaio.

Txakur handiak edo txikiak garbitzeko ezberdintasunik ba al dago?

Ez. Makina honek 300 kilo jasaten ditu, beraz, tamaina aldetik ez dago arazorik. Txakur txiki eta handiak izan dira iada hemen eta egia esan denak oso gustura irten dira.

Beste animalirik garbitzerik ba al dago hemen?

Ekar daitezke beste animalia batzuk, baina produktuak txakurrentzako bereziak dira. Beraz, baliteke beste animaliren

bati alergia edo horrelako arazoren bat ekartzea tarteka, nahiz eta ez litzatekeen ohikoa izango.

Zure gustuko animalia?

Zaldiak dira gehien gustatzen zaizkidanak.

Zure gustuko lana etorkizunera begira?

Albaitaritzaren inguruan lan egitea gustatuko litzaidake. Lokal hau erosteko aukera izan genuen eta inbertsio bezala hartu dugu. Aurrera begira, kontsulta bat jartzeko ilusioa daukat eta hau konplementu bat izango litzateke.

Pisu batean edukitzeko animalia bat?

Nik, aukeran, pisu batean ez nuke txakur bat edo horrelako animalia bat edukiko. Nire ustez animaliak espazioa behar du. Hala ere, pisuan ohitu egiten dira eta adaptatu egiten ditugu. Baina, ziur nago, beraiek aukeratu beharko baluteke, ez luketela pisu bat aukeratuko. Akuariotako arrain eta dortokak dira egokiak pisu baterako.

Etxe handixeago batean?

Bai. Lorategi bat edo daukan etxe batean hobeto egongo da txakurra. Horrela, belarretan leku pixka bat izango du estresa kanporatzeko nahikoa izango du.

Eta baserri batean?

Baserri bat ideala izango litzateke txakurra edota beste edozein animalia edukitzeko.

Bizitzeko leku bat?

Ahal izanez gero, baserria.

Zaletasun bat?

Ez naiz zaletasun bakarreko pertsona, baina asko sartuta nago zaldien munduan.

Amets bat?

Gustatzen zaidan honetan lan egin ahal izango banu, ametsa beteta egongo litzateke.

ARRIETA

JATE TXEA

Ezkontzak, jaunartzeak,
bataioak...
era guztietako
ospakizunak

☎ 943 88 00 02
OLABERRIA

Ordiziako azoka berezia iruditzen



J oan ziren Ordiziako Euskal Jaiak, baita azoka berezia ere. Asteazkenean mundu bat inguratzen da Ordiziara: baserritarrak, kaletarrak, zaharrak, gazteak, oporretan dauden ikasleak, jai hartu duten langileak,

erretiratuak, baserritarrez jantziak, dotore jantziak... Irabazleak eta protagonistak komunikabide guztietan atera dira. Argazki nagusitik kanpo geratu direnak ekarri nahi izan ditugu horri hauetara.

URRAKI
OVER Taldea **BIDAIAK**

Zure bidai ajentzia

Kale Nagusia 42, behea **BEASAIN**
Tel./Faxa: 943 80 40 15 urraki@over.es www.over.es

VOLVO 

ANZIZAR, S. A.



**Autoen salmenta
Mekanika eta
elektrizitatea**

Beasain-Zumarraga, 46 Km.a **BEASAIN**
www.anzizar.com ☎ 943 88 17 00 Faxa.: 943 88 48



Barazki eta fruituak



Jose Migel Barandiaran plazan ikusmin handia sortzen dute barazki, fruitu, zein perretxikuen postuek. Ikusgai izaten dira alerik ederrenak eta handienak, denak txukun jarrita, ikusmiran gerturatzen diren ehunka eta ehunka bisitarien gozamenerako.

Plaza Nagusia, berriz, asteazkeneroko azoka izaten da. Goizean goiz hasita, asteroko erosketak egiten dira bertan. Hori bai, postuak inoiz baino dotoreago jartzen dituzte baseritarrek. Urteko erakusleiho garrantzitsuena izateaz gain, barazki eta fruitu lehiaketa ere antolatzen baitute. Epaimahaiaren ustez, Anttoni Murgiondo gabiriarrarena izan zen aurtengo posturik ederrena.

Pirenaika arrazko ganadu lehiaketa

Garagartza plazan Gipuzkoako pirenaika arrazko ganadu lehiaketa izaten da protagonista. Baserritarrik adituena bezalaxe kalekumerik ezjakinen adi-adi aritzen da ganaduari begira. Baten atzealdeak, bestearen adarrak edo hurrengoaren errapea, aipagai izateaz gain, iaz baino jende gutxiago dabilela bezalaxe entzuten da inoiz baino jende gehiago inguratu dela Ordiziara. Aurten ere, Lorea Katarain gazte idiazabaldarrak hainbat sari jaso zituen bere behi eta bigantxeekin.

Kaleetan, berriz, giroa alaitzeko trikitixa eta dultzaina soinuak ibiltzen dira gora eta behera. Jexuxen Jazpana ere bertan izan zen, urtero bezala, Jose Migel Barandiaran plaza musikaz jantzi.



iñAUSTi N-1 errepidea
lurre auzoa
OLABERRIA
© 943 88 43 01

KARROZERIA

ARANDIA N-1, z/g
Iurre Auzoa
OLABERRIA
☎ 943 88 09 47

Garaiea

LADA
Ssang Yong

AUTOEN KONPONKETA



Gazta protagonista nagusia

Beti-Alai pilotalekuan gazta izaten da protagonista nagusia. Lehenengo orduan gazta guztiak, bakoitza bere zenbakia-rekin, prest egoten dira notarioak zozketa egin zain. 7 mahaitan sukal dari, teknikari eta kazetari bana egoten dira gaztak begiratzuz, usainduz eta dastatzuz hoberena zein den erabakitzeko.

Irabazlearen zain, berriz, argazki kamarak, telebista kamarak, grabagailuak eta kazetari ugari izaten dira. Ikusleek jakinminez jarraitzen dute dena, eta gazta erdia erosteko enkantean parte hartzen dutenek zer esanik ez. Aurten Castillo Hoteleko ordezkariak erosi dute gazta (ikusleen lehenengo mailan ageri dira argazkian). Azpiko argazkian, irabazlea, Jesus Ansola elgoibartarra kazetariz inguratuta ikus daiteke.



ETXE-ZYRI

SAGARDOTEGIA - JATETXEA

Etxe-Zuri baserria

☎ 943 882 049

OLABERRIA

**Opor
ondoren
zabalik!**



- ✓ Udazkeneko menu berezia asteburuetan
- ✓ Eguneroko menua
- ✓ Sagardoa txotxetik




EUSKAL HERRIKO HEGAZTIEN SEGURA

4^{eguna}

2005ko irailaren 25ean
EGITARAUA

Goizean zehar, herriko txistulari eta trikitilariak
10:30etan:

- Euskal oiloaren erakusketa
- Gune ekologikoa
- Oilo eta hegaztien produktuak salgai
- Hegazti ikusgarriak: faisaiak, kurriloak, etabar.





*Legorretatik Legazpira
bitarteko eskola guztien
aholkularitza egiten dute*

Berritzegunea ikastetxeen zerbitzura

Nahiz eta eskola girotik kanpo ezezaguna den Berritzegunea, lan asko egiten dute irakasleekin elkarlanean ikasleak gizartean behar bezala txerta daitezen. Beraien lanaren berri jakin dugu bertako Pedagogia Batzordeko kide batzuen eskutik: Mariaje Recio, Pilare Mujika eta Ana Unamuno.

**"Eguneroko ogia, ogi bereziak
eta pastel ezin hobeak"**



K. Nagusia 35 BEASAIN

☎ 943 88 77 58

Elosegi, 14 LAZKAO

☎ 943 88 72 79

Sta. Maria, 19 ORDIZIA

☎ 943 16 00 44

ALDANONDO GARAJEA
MICHELIN zerbitzu ofiziala

Gurpil lanak,
alineazioa,
aluminiozko llantak

Filtroak, olioak,
engrasea

Frenu pastilak, tubo
eskapeak, bateriak

Harezko txorrotadak



Errota Poligonoa IDIAZABALgo sarreran ☎ 943 18 72 57

Zein da Berritzegunearen zeregina ikastetxeetan?

Ikastetxeen laguntza-zerbitzua garenez, irakasleen prestakuntza eraman eta aholkularitza eskaintzen dugu, hezkuntza berritzatzeko sustapena eginez. Izan ere, hezkuntzak gaur egungo erronketara berritzatu behar du. Berrikuntzaren aholkularitza pedagogikoa egiten dugu.

Jaurlaritzak Hezkuntza Sailean dituen zerbitzuak gara, zonaldeka antolatuta. Gipuzkoan 6 Berritzegune gara eta Erkidego mailan 18 guztira. Lurralde Ordezkaritzak, berriz, hiriburuetan ditugu. Gu, nolabait esateko Lurralde Ordezkaritza eta Lakua eta ikastetxeen tartean gaude, ikastetxeetatik hurbil eta hezkuntza administratibotik ere bai.

Eskualdeko ikastetxe guztiei laguntzen al diezue, itunpekoiei eta publikoiei?

Bai, Ordiziako Berritzeguneak Legorretatik hasi eta Legazpira arte dauden ikastetxe guztiak hartzen ditu, denera 30 ikastetxe, batik bat Derrigorrezko Hezkuntzari dagozkion etapetan. Hala ere, badira beste erakunde batzuk prestakuntzari dihardutenak eta gurekin kolaboratzen dutenak edo ikastetxeetan lan egiten dutenak, bakoitzaren ibilbidearen baitan. Sare batzuk euren antolaketa propioa dute baina ez itxia.

Gurean zonalde ikuspegi asko landu nahi izaten dugu, denok elkar eraginean ari garelako testuinguru jakin batean, eta horregatik esan dezakegu ikastetxe guztietan dugula eragina eta haiek gudan.

Hala, ikastetxeetan zu-



Goierriko irakasle talde bat Ordiziako Berritzeguneko mintegi batean.

zendaritzan edo pedagogi batzordean egiten dugu lan era sistematikoan, ikastetxe bakoitzaren prozesuaren arabera. Beste batzorde batzuetan ere aritzen gara. Hots, inklusiba batzordean, bizikidetza batzordean edota beste hainbatetan. Bestalde, eskualdeko zuzendari guztiekin eta irakasleekin ere lan egiten dugu eta hemen mintegiak izaten dituzte. Beraz, gu ikastetxeetara joaten gara baina beraiek ere hona etortzen dira.

Ikastetxeari laguntzeaz gain, ikasle konkretu baten arazoan ere laguntzen al duzue?

Bai, noski. Ikasleak eta testuinguruak aztertuta egoera horretarako hezkuntza orientabideak eragile guztiekin batera zehazten ditugu eta prozesuaren jarraipena egiten dugu. Ikasle baten inguruko koordinazio sarean lan handia egiten dugu gainerako erakundeekin: Osakidetzarekin, gizarte langileekin, ASPACekin..., dagokionarekin finean.

Ikastetxe guztietan hezkuntza premia berezia behar duten ikasleen hezkuntza ibilbidearen ardura daukagu, gure aholkulari psikopedagogoek jarraitzen

dute ikasle horien prozesua eta beharrezko diren baliabideak jartzen ditugu: logopedak, terapeuta okupazionala, laguntzaileak...

Zer hartzen duzue oinarri hezkuntza planifikatzerako orduan?

Hezkuntza Berrikuntzakildo nagusi batzuk ditu eta horiek definitzen eta bidera daitezen laguntza ematen dugu. Berrikuntzaren ildoek gaur egungo gizartean dauden lehentasunak eta erronkak kontutan hartzen dituzte. Honakoak dira oinarri edo ildo nagusiak: eskola inklusiboa, kultur arteko hezkuntza, bizikidetza, teknologia berrien mundua (Informazio eta Komunikazio Teknologia); Europar dimentsioa, hizkuntz normalizazioa, eta eleaniztasuna; hezkuntza zientifikoa eta Agenda 21a; kalitate prozesuak... Horrekin guztiarekin, ikasle guztiek gizarte honetan era aktibo ba-

Berrikuntzaren ildoek gaur egungo gizartean dauden lehentasunak eta eta erronkak kontuan hartzen dituzte

Zunzunegi
Oinetakoak
Hirigoien, 8A LAZKAO
943 087 913

Ikastetnik
psikopedagogia zerbitzuak
Joan Iturralde, 5
943 160 120
Beasain

Ikasketa oztopoak
Diagnosia eta tratamendua
• Test-ak, Frogak • Tailerrak



Ordiziako Berritzegunean Altamira auzoan dago kokatuta.

tean parte hartzea lortu nahi da.

Gizartean dagoen aniztasuna barne hartuko duen eskola nahi duzue ezta?

Bai. Hori da orain horrenbeste hitz egiten den eskola inklusioaren nahia. Denok dugu hezkuntzarako eskubidea eta gainera, denok eskola berean.

Bazterketa aukera guztiak ekidin behar ditugu, edozein eta edozergatik. Esklusiorik egon ez dadin benetan lan egiten dugu. Beraz, ikasle guztiek dute ikasteko eta partehartzeko eskubidea eta eskolari dagokio hartarako zein

oztopo dituen identifikatzea eta horiek gainditzeko bideak jartzea.

Noiz hasi zen 'denon eskola' horren pentsaera eta aldaketa?

Euskal Autonomia Erkidegoan integrazioa izeneko programa sortu zela urte asko da. Aitzindari izan zen hezkuntza bereziko ikasleak aparteko ikastetxe bate-

an zeudenak integratzen, auzokoetan, gainerakoekin batera.

Nahiz eta hori aurrerapauso handia izan, egun beste pauso bat eman nahi du Eusko Jaurlaritzak eta horregatik, inklusioa du erronkatzat.

Nazioarte mailan 1990an UNESCOk Jomtien-en egini-ko Deklarazioan agertzen

Inklusioa integrazioa baino areago doa. Denek aurrera egiteko mugak ekiditea du helburu

da lehen aldiz "inklusio" kontzeptua.

Zer da inklusioa?

Inklusioa integrazioa baino areago doa. Denek aurrera egiteko mugak ekiditea du helburu inklusioak. Orain, aldatu egin da gutxituen definizioa. Egun ez da norberaren arazoa soilik, baizik eta testuinguruarena. Beraz, testuinguruak eraldatu behar du, guztiok izan ditza- gun aukerak ikasteko eta parte hartzeko.

Hiru urte dira jada inklusioarekin lanean ari garela eta gure zonaldean, inklusioari baietz esan zaio. Konpromiso hartu da eta hezkuntzaren berriztapena aurrera doa osasuntsu.

Gurasoak horretarako prestatuta al daude? Batzuk ez dute denak batera egotea ondo ikusiko ezta?

Gutxi gora-behera bide hori eginda dago gurasoekin, hau da, haur guztiak batera egotearena. Noski, egungo gizartea horrelakoa da eta denok batera bizitzen jakin behar dugu. Familiak, eskola komunitatearen barnean, aukera gehiago dute horrelako aldatetarako prestatzeko. Gainera, denok lehentxeago edo beranduxeago konturatzen gara beste laguntza behar dugula eta, hein berean, laguntzaila izan behar dugula.

Zein laguntza mota izaten da ikastetxeek gehien behar izaten dutena?

Irakasleriaren prestakuntza eta hortik eratortzen diren

berriz

AMAYA ARZUAGA
MIRIAN OCARIZ
ISABEL MARANT
PAUL & JOE
HOSS
MISS SIXTY

FRENCH CONNECTION
DIESEL
FOR ALL MANKIND
ANTIK BATIK
EARL JEANS
SCOOTER

BEASAIN

DONOSTIA

Alpe
SUKALDE ALTZARIAK

sukalderik goxoenak

Mariarats 10 Beasain

Tfnoa 943 88 86 84

berrikuntzak abian jarri eta kontsolidatzeko behar den prozesuan aholkularitza eta laguntza. Horrek dakar egitura pedagogiko bat sortzen joatea eta irakasle guztien prestakuntza ibilbidea ere sendotzen aritzea.

Izugarri aldatu da ikastetxeen funtzionamendua.

Bai, asko aldatu da. Garai batean hezkuntza akademikoa zen, hau da, teorikoa. Gaur egun ordea, hezkuntza unibertsala da eta gainera dinamikoa. Egungo gizarteak azkar egiten du aurrera eta hezkuntzak ere aurrera egiteko berritu beharra dauka. Prozesua sakona da eta exigentzia handikoa, modu oso azkarrean gizarte honek aldaketa ikaragarriak izan baititu eta hezkuntzak abiadura horretan bereganatzea ez da hain erraza, ikas-irakaste paradigma egokitu behar da eta.

Haur baten heziketan zein leku bete behar du ikastetxeak eta zein gurasoek? Ikastetxeari pisu handia ematen al zaio?

Gure ustez ikastetxe eta gurasoen arteko komunikazioan dago erantzunik egokiena. Haurrari laguntza emateko, zeinek zertan lagundu jakiteko, hoberena ikastetxeko ordezkarien eta familien gertutasuna da, elkar ulertzea.

Ez dira eginkizunak banandu behar, hain zuzen ere, muga horiek difuminatu nahi ditugu. Bateratzea da kontua. Batzutan, eskolak gutxiegi deitzen duela edo familiak gutxi hurbiltzen direlako, bata besteari botatzen dio ardura. Hori guztia ekidin daiteke eskola eta gurasoak hurbil mantenduz gero.

Jazarpena edo bullying-a denen ahotan dagoen kontua da. Nola egiten zaio aurre jazarpen kasu bati?

Iaz Eusko Jaurlaritzatik protokolo bat jarri zen martxan eta protokolo hori ikastetxe guztiek ezagutu eta bete beharra daukate. Beraz, jazarpen kasu baten aurrean lehenengo gauza protokolo horren txostena martxan jartzea da. Informazioa bildu ondoren, ikastetxeko eragileen parte hartzea hasten da norantz jo erabakitzeko, eta noski, gure aholkularitza ere aukeran dute.

Bullying kasu guztiak ezberdinak dira, baina, lehenengo eginbeharrekoa biktima babestea izaten da eta erasotzaileekin lanean hastea. Esan daiteke, jazarpen kasu bat azkar hartuz gero disolbatu daitekeela. Tratu txarrei aurre egiteko interbentzio zuzena beharrezkoa da eta eman behar diren pausoak oso ordenatuta egon behar dute eta hori da PIKAS metodoak eskaintzen diguna. Momentu honetan esan dezakegu, ikastetxe guztietan bi edo hiru pertsona daudela horretarako prestatuta. Eta orokorrean, klaustro gehienetan gai hau landu da eta bizikidetzaren proiektu bat eduki beharraz jabetu da, hau da, prebentzioan saiatuz.

Zaila al da jazarpen kasu batetaz ohartzea?

Jazarpen kasu bat ikusteko nola begiratu behar den

Jazarpena edo buling-a ikastetxeetan



Pilare Mujika, Ordiziako Berritzeguneko zuzendaria.

ere ikasi behar du irakasleak. Izan ere, dena bezala da: ezagutzen duzunean ohartzen hasten zara. Bullying-arekin berdin gertatzen da. Zeri erreparatu behar diogun garbi dugunez, guztien begiradak findu egiten dira. Dena dela, ikerketa guztiek diotenez, esan behar da, kasu hauek oso gutxitan gertatzen direla irakasleen aurrean. Horregatik ikasi behar da indikatzaile "ez zuzenak" irakurtzen. Alderdi hau ere klaustro geroz eta gehiago-etan prestatuta gaia da.

Gizartearen alarma handiegia sortu al da? Lehen ere jazarpena hor zegoen baina ez zitzaion horrelako garrantzirik ematen.

Alde batetik, kezka eta ardura sortzea egokia da egoera hauei guztiok du-

gun erantzukizunetik konponketa bat emateko: bai familiak (etxean gurasoak asko entzuten eta ikusten dugu eta pista asko eman diezazkigukete), bai eskolak (geletan eta gelaz kanpo gertatzen diren hainbat egoeretan guztiok arduraz jokatu), bai gizarteak orokorrean (kalean ikustea egokitzen zaigu).

Badira urte batzuk, gure Berritzegunean 8 urte jada, Bizikidetzaren mintegiak martxan jarri zirela eta horrekin batera honi buruzko proiektuak irekitzen hasi ziren ikastetxeetan. Beraz, kezka lehendik zegoen nahiz ez hain publikoa izan. Esate baterako, PIKAS metodoa 2000. urtean Berritzegune honetan lantzen hasi ginen eta hori erabiliz esku hartzeak ikastetxeetan gauzatu.




GERTU
ENPRESA AHOALKULARIAK - ABOKATUAK

San Inazio, 5 - 20200 BEASAIN
Tel: 943 16 21 92 Faxa: 943 88 36 33
gertu@gertuasesores.com

JoXi

Iturgintza - Berogintza - Gasa

Carrefour
merkatalgunea
Tel. - faxa:
943 88 19 87
676 178 488
OLABERRIA



Hektor Rey eta Alaia Mujika aritzen dira Beasainen tatuajeak eta piercing-ak egiten. Sei urte dira jada mundu honetan lanean hasi zirela eta oso gustura daude egiten ari diren

lanarekin. Horrelako lan batek eskatzen dituen beharrezko garbitasun neurriak betetzen dituzte eta ez dute inolako arazorik izaten. Beraien lana gehiago ezagutu asmoz, hainbat galdera egin dizkiegu.



mazda

Bikar, S. A.

☎ 943 889 296
Faxa: 943 887 952
N-1 errep. 419 Kma
BEASAIN



IÑAKI ARIN
Aseguruak



☎ 943 888 702

Oriako Pasealekua, 20
B E A S A I N

Noiz hasi zineten mundu honetan lanean?

Orain dela sei urte hasi ginen honetan lanean. Hasieran, Ainea izeneko lokala jarri genuen eta han tatuaje eta piercing-ez gain, ile-apaindegia ere bazegoen. Baina, duela bi urte, gure lokala aparte jartzea pentsatu genuen eta horixe egin genuen. Orain, Tatoo Eki izena du dendak.

Eta zer dela eta hasi zineten tatuajeak egiten?


Hektorri tatuaje bat egin zioten duela urte batzuk makina 'casero' batekin (etxean egindako makina batekin) eta marrazkia oso gaizki egin zioten. Beraz, marrazki hori edonola konpondu beharra zegoela esan zuen eta horixe egin zuen. Hektorrek berak, oso ongi marrazten duenez, bere tatuatzeko makina egin zuen etxean eta egin zioten tatuaje hori konpondu zuen eta horrela hasi zen. Geroago, tatuatzeko makina bat erosi zuen. Eta tatuajeen eta piercing-en mundua lotuta dagoenez, ni piercing-ak egiten hasi nintzen.

Horrelako denda bat jartzea erabaki zaila izan al zen?

Guri beldur pixka bat ematen zigun baina familiaren babesa izan genuen. Hasieran, Ainea, familiako negozio bat zen. Gero ordea, denak banandu egin ginen eta guk denda hau jarri genuen.

Zergatik tatuajeak eta piercing-ak?

Hektorrek txiki-txikitatik izan du marrazteko zaletasuna eta oso marrazki onak egiten zituen. Hori dela eta, marrazten jakinda, zer hobeto horretan lan egitea baino?



Edozein marrazki tatuatzeko duzue?

Bai. Tatuajea egin behar duenak, nahi izanez gero, berak ekartzen du marrazkia eta Hektorrek berdina egingo dio. Hala ere, hemen bertan marrazki mota aukera handia daukagu eta hemen aukeratzea ere badago.

Eta edozein lekutan egin al daiteke tatuaje bat?

Leku guztietan egitea posible da, baina guk ez dugu leku denetan egiten. Askok eta askok eskuetan eta aurpegian ez dute tatuajerik egiten, etika profesionala-

gatik edo. Hektorrek ere normalean bi leku horietan ez du tatuajerik egiten. Hala ere, gorputz ia dena tatututa daukan betiko bezero bati egingo dio, baina, lehenengo edo bigarren tatuajea egin nahi duen gazte bati ez. Bi leku horietan tatuajea eginez gero, lana aurkitzerako orduan zailtasunak egoten dira hainbat lekutan. Zein da jendeak gehien tatuatzeko duen lekua?

Batzuetan asko etortzen dira lepoan edota ipurdiaren gaineko zatia tatutu nahi dutenak. Hala ere, besoa eta hankako bola asko ta-

tuatzen diren lekuak dira. Piercing-arena bai da moda kontua. Azken aldian, jendeak gehien eskatzen duen lekua ezpaina da.

Koloretan edo kolore bakarrean. Zer ezberdintasun dago?

Koloretan egiten den tatuajea gehiago kostatzen zaio orbaintzea edo zikatritzatzea. Koloretan bi aste eta erdi kostatzen da orbaintzea eta zuri-beltzean berriz, aste bat eta erdi gutxi gora-behera. Noski, azalaren arabera denbora hori gutxitu edo gehitu egin daiteke.

Normalean arazorik ez da izaten, baina koloreek badute beren arriskua. Izan ere, kolore gorriak, berdeak eta urdinak pigmentu mineral gogorragoak dituzte eta pertsona batzuei alergia sortu diezaike. Hala ere, norberak badaki berunari edo nikelari alergiarik dion. Berunari alergia diola esaten digun pertsona bati beste pigmentu batzuekin egiten diogu tatuajea eta ez da ezer gertatzen.

Asko errepikatzen den marrazki bat?

Letra txinoak eta tribalak dira gehien egiten diren marrazkiak. Hala ere, badaude hainbat irudi aspalditik egin izan direnak eta oraindik egiten direnak. Hala nola, Che Guevara eta arantzazko besokoa.

Tatuaje arraroren bat egin al duzue?

Zer da arraroa? Diskoen portadetako tatuaje asko egiten dira baina hori niretzat ez da arraroa. Hala ere, herrietako armariak egitea pixka bat arraroa iruditzen zait. Behin, Extremadurako herri bateko armaria tatuatzeko eskatu ziguten. Denetik egiten da.



Tel. eta Faxe: 943 886 558
Poltsikoko tel.: 616 698 288
Zubi-Erreka Industrialdea, 42
LAZKAO
toldosagustin.com
auxkin@toldosagustin.euskalnet.net



943 88 96 12 goierritarra@topagunea.com

Zein adinetako jendea etortzen da?

Tatuajeak hogeitertatik hasi eta berrogei urtera bitartekoak egiten dituzte gehiena. Piercing-ak ordea gazteagoetatik hasten dira, hamahiru urtetik hogeita hamar urtera artekoak. Piercing-ak gehiago egiten dira errazagoak direlako eta gainera edozein momentutan kendu daitezkeelako. Tatuajeena ordea, gehiago pentsatu beharreko gauza da.

Egia al da ipurdi gainean tatuajea izanez gero, ezin dizutela epidurala eman?

Bai, egia da, baina konponbidea badu. Ni haurdun nago eta tatuajea daukat epidurala ematen den lekuan, baina, soluzioa badu. Epidurala bizkarrezurreko hiru garren eta laugarren ornoaren tartean sartzen da. Beraz, zati horretan kauterizadore batekin azala erretzen da eta hori orbandutakoan, sartu daiteke epidurala. Horregatik, epidurala sartu baino bi hilabete lehenago behintzat komeni da hori egitea.

Zergatik ezin da sartu epidurala tatuajea dagoe-la?

Epiduralak pigmentuak barrura sartzen ditu, eta baliteke pigmentu horiek infekzio bat sortzea. Zaila da infekzioa gertatzea baina gerta liteke.

Leku batzuetan mina erraz jasaten al da?



Edozein lekutan tatuaje bat egitea beti da pixka bat mingarria baina min eramangarria da. Nik depilazioarekin konparatzen dut min hori. Hezurretik gertu dauden lekuetan eta azal fina daukagun guneeetan ematen du min gehiago.

Tatuajea betirako da eta ongi pentsatzekoa da ezta?

Noski baietz, ongi pentsatu behar da zer egin eta non egin. Badira denboraldi baterako direla esaten duten tatuaje batzuk, baina ez da egia. Tatuaje horiek, bost urtetik zazpi urterako epea izaten dute, baina ez dira ezabatzen. Zati horretan mantxa bat bezala gelditzen da eta azkenean berriro

errepasatu edo laserrarekin kendu behar izaten da. Denbora baterako tatuaje horiek hobeto da ez egitea, eta egitekotan betirako egitea.

Adin txikikoek tatuatzeko aukerarik ba al dute?

Guk 18 urtetik beherakoei gurasoen edo tutorearen baimena eskatu behar izaten diegu, hala eskatzen du legeak.

Norbait tatuajea edo piercing-a egitera etorri eta ezetz esan al diozue?

Bai. Gertatu izan zaigu jaieran jendea mozkortuta etortzea eta noski, ez diegu egiten. Tatuajea egiteko ezin da alkoholik edanda etorri, ez eta bestelako drogaren bat hartuta ere. Horretaz

gain, atake epileptikoak di-tuen pertsonak ezin dute tatuajerik egin. Izan ere, posibilitate handiak daude tatuajea egiten ari zaren momentuan epileptikoa den bezeroari atake batek emateko. Beraz, epileptikoei ez diegu egiten.

Bestalde, seropositiboek edo bestelako gaixotasunak dituztenei ez daukagu inolako arazorik tatuaje bat egiteko. Hartu beharreko segurtasun neurriak betez gero, ez da arazorik egoten. Hala ere, eskertzen diegu horrelako gaixotasunen bat baldin badute guri abisatzea. Tatuajearen orbaintzea luzeagoa izango dela eta horrelako azalpen batzuk eman ahal izateko.


GUKlan
BAINUKO OSAGIAK
BEROGINTZA ITURGINTZA GASA

Tel.: 943 161 277 Faxa: 943 160 933
Nafarroa Etorbidea, 27
BEASAIN


Tailerra:
Okorro, 6
ORDIZIA

ZUZENKI
A HOLKULARITZA



Abokatuak
Enpresen asesoria
eta gestioa

Tel/Faxa: 943 162 393
e.posta: zuzenki@euskalnet.net
Hirigoi, 7 LAZKAO

 txekin

www.zuzenki.net



Segura

Euskal Herriko hegaztien 4. eguna

Irailak 25, igandea:

Goizean zehar: Herriko txistulari eta trikitilariak ibiliko dira herrian giroa jarritz.

10:30ean: Euskal oiloen erakusketa egingo da. Horretaz gain, guneko ekologiko bat ere egongo da.

Oilo eta hegaztien produktuak erosteko aukera egongo da goiz guztian zehar. Hainbat hegazti ikusgarri ere bertan izango dira: faisaiak, kurriloak, etab.

Beasain

IV. Boluntario Eguna

Urriak 1, larunbata:

10:00etan: Haurrentzako jolasak eta puzgarriak egongo dira Gernika pasealukuan eguerdira bitartean.

11:00etan: Elkarteetako materiala eta produktuak jasotzeko aukera izango da Gernika pasealekuan.

11:15ean: Musika eskolako trikitilarien saioa.

Parte hartuko duten elkarteak:

Nagusilan: Adineko pertsonen arreta eta laguntasuna.

Gurutze Gorria: Osasun, gizarte eta prestakuntza alorrak.

Txolarte: Adimen-urritasuna duten 16 urtetik gorako pertsonentzako aisialdia.

Goitzat: Adimen osasun arazoak edo atzerapena duten pertsona eta familiei laguntza.

Manos unidas-Esku batuak: Garapen proiektuak 3. munduan.

Minbiziaren aurkako elkarteak: Gaixoei eta familiakoei laguntza.

3. Munduarekin lankidetzat taldeak: 3. munduaren egoeraren aurrean lanean.

Erretiratu eta pentsiodunen elkarteak: Bere bazkideei zerbitzu eta jarduera desberdinak.

Osasun pastorala: Gaixorik daudenei bisita eta laguntasuna.

Caritas: Beharra duten pertsonen alde.

Txilibutxof: Aisialdiko taldea, elkartasuna, laguntasuna... bultzatzen dituzte.

Herriak elkarlanean: Hirugarren munduaren alde lanean.

Odol emak: Beraien odola ematen dute.

HORTZ KLINIKA



CAMPAÑOLE Doktorea
Zirujau dentista

473 zki. kolegiatua

Odontologia, hortz zuriketa, estetika, periodontzia eta hortz inplanteak jartzen ditugu.



Hortz zuriketa
ordu betean

Nafarroa etorbidea, 8 - 1.A

BEASAIN

☎ 943 085 229

Iñautsi
Hortz Klinika
ESTIBALIZ JUAREZ ALDARONDO
1902 ZKI. KOLEGIATUA

RADIOGRAFI PANORAMIKO ETA ZEFALOMETRIAK
ODONTOLOGIA OROKORRA: HAUR ETA HELDUAK

JOAN ITURRALDE, 3 BEASAIN
☎ 943 88 46 28




MUJKA
LIBURUDENDA

Tel. / faxa: 943 88 11 94

Kale Nagusia, 19 ORDIZIA



Jauregi
TOLDOAK



INSTALATZAILE OFIZIALA



Laza

LLAZAPLUS ZENTROA

T 943 880 243 Antzizar auzoa z/g - Beasain

Zerainen txondorra egin dute:

Tradizioa mantenduz, Apaolaza gogoan

Juan Apaolaza Zeraindar ikazkina orain dela gutxi hil zen. "Baina bizi izan zen bitartean behin baino gehiagotan saiatu zen gogotsu zeraindar gazteei, garai bateko tradizioa jarraituz, txondorra nola egin eta egur ikatza nola lortu erakusten", agertu dute Zeraingo Turismo bulegoek.

Hori dela eta, Juan Apaolaza gogoratuz, aurtengoa ere egur ikatza egin dute Zerainen. Horretarako, 12 tonelada egur prestatu zituzten. Pago egurrez egingako txondorra da eta irailaren 18an, eguerdian, piztu zuten, Gipuzkoako Nekazaritza Ekologikoaren XI. Azoka ospatu zen egun berean. Txondorra, 8-10 egunez egongo da piztuta egurra ikatz bihurturarte.

Txondorraren muntaketa

Lehengo astean zehar txondorraren muntaketa egiten aritu ziren. "Asteartean hasi ziren egur meta hau muntatzen eta uste baino lehena go amaitu zuten", adierazi dute Zeraingo Turismo bulego kideek.

Duela 40 urte utzi zioten Juan Apaolazak eta Julian Muñoak txondorra egiteari. Garai haietan, egur ikatza lantokietara saltzen zuten

baina denborarekin hori ere galtzen joan zen. Azkena egin zituzten txondorretako ikatzak Bergara eta Altsasura saldu zituzten, Julian Muñoak adierazi duenez.

Uda partean egurra prestatzen zuten eta udazkenean txondorrek egiten zituzten. "Aldiko lau edo bost txondor egiten genituen. Gainera, orain Zerainen egin dugunarekin alderatuta, lau aldiz handiagoak izaten ziren. Txondorra egiteak ez zuen diru handirik ematen, beraz, ikazkinak mantenuaren truke aritzen ziren", dio Muñoak. Gosaltzeko, bazkaltzeko eta afaltzeko baba txikiak, urdaia eta ardoa ematen zituzten.

Txondorra sutan dagoen



1994ko irailean egin zuten txondorra Juan Apaolaza eta Julian Muñoa ikazkinek.

bitartean, egun osoan zehar, gainean egon behar da zaintzeko eta ez itzaltzeko. Muñoaren arabera, haizerik ez dagoenean, arnasa har-

tzeko zuloak ireki behar zaizkio. Haizea dagoenean berriz, zulo horiek itxi egin behar dira bestela egurra erre egiten delako.



Julian Muñoa txondorra zaintzen. 1994az geroztik 4 txondor egin dituzte Zerainen.

A MEBI
Sagardotegia

Erretegi bezala zabalik

- * Eguneroko menuak
- * Karta zerbitzua
- * Ospakizunak
- * Plater konbinatuak

Zubierreka,9 © 943 16 25 23 LAZKAO

ASEPLAN S.L.
AHOLKULARITZA - ENPRESAK

KONTABLEA
JURIDIKOA
LABORALA
FISKALA
MERKANTILA
INMOBILIARIA
FINKEN ADMINISTRAZIOA

Tel.: 943 887 129
Oriamendi 15, behea
BEASAIN
Tel.: 943 086 420
J.M. Iturriotz, z/g

“Txondorra egiteak eta zaintzeak trebetasun handia eskatzen du”

Zeraingo Turismo bulego-koen esanetan, txondorra egin eta zaintzeak trebetasun handia eskatzen du, eta artisau lana ere bada hainbat momentutan. Beraien azaldu dute txondorra egitearen eta zaintzearen prozesua:

“Lehenik eta behin txondor zulo egokia bilatu behar izaten da. Aurretik baten bat egin den lekua da aproposena, baina, bestela, lur beltza bilatu behar da, ez buztin lurra.

Txondorra zutitzen hasi baino lehen, egurra bildu, pilatu eta txikitu egin behar izaten da. Zutoina jartzen da erdian gida moduan, eta horren inguruan neurri bereko lau egur puska, txondorraren kebideta osatuko dutenak, alegia. Hortxe kokatu behar izaten da txondorraren altuera duen makila edo ardatza, “alkate” deitzen zaiona.

Behetik gora eraiki behar izaten da Txondorra: enbor lodienak azpian, mehexeagoak bigarren ilaran eta are meheagoak hirugarrenean. Armiarma saregisako egur meta osatuz, kono forma ematea izaten da kontua.



Behin hori bukatuta, estali egin behar izaten da. Orbela edota garoa jartzen zaio lehendabizi eta lurra botatzen zaio gainera ondoren. Oso garrantzitsua da guztia ondo estaltzea, su eman eta gero haizea sartuko balitz, erabat erreko bailuke txondorra; egostea da gakoa eta ez erretzea.

Su ematea bakarrik falta da. Horretarako, erdiko

ardatza “alkatea” kendu eta sua botatzen da barrura, lur zati batez goiko zuloa estali eta zulo txiki batzuk irekitzen dira keak alde egin dezan.

Egur ikatza helburu

Egunak igaro ahala, txondorraren kono-forma desitxuratu egingo da. Egurra egosi bitartean, ikazkinak txondorra elikatzen segituko du, suak zabaldutako

zuloak estali eta egosketa burutu arte enbor txikiagoak sartuz.

Kearen kolorea iluntzen denean sumatzen da txondorra egina dagoen edo ez. Pixkanaka-pixkanaka sardez edo beste tresna batez zabalduko da txondorra, eta hortxe azalduko da hainbeste kostatako ikatza. Hozten utzi eta zakuetan sartzea besterik ez da geratzen.”

maizpide
I a z k a o

Deitu eta eman izena:

943 88 92 31

lazkao@maizpide.com

www.maizpide.com

Barnetegian
hilabeteko ikastaroak.
Familia
euskaldunetan
egoteko aukera.

Ordukako ikastaroak.

euskara
Bizi,
euskaraz
Bizi!

EGA on-line
Autoikaskuntza.

Larunbatetan
Alfabetatze
eta EGA
ikastaroak.

ACV MULTIMEDIA.COM

ETXEBIZITZAK

salgai

Beasainen pisua salgai, Arana kolean. 943881919 (11:00etatik 20:00etara) edo Norte tabernan.

Beasaingo erdigunean pisua salgai. Guztiz berritua. Etxetresna eta altzariz hornitua. 3 logela, egongela, bainugela eta trastelekua. 679617159.

Ormaiztegin 117 metro karratuko pisu eguzkitsua saltzen da. Etxetresna eta altzariz ornitua. 3 logela, bainugela, sukaldia, egongela eta 3 terraza. 635709660.

errentan eman

Nafarroan nekazal etxe bat alokatzen da, Urbasa inguruan. Handia da. 948539381 / 616537765.

Ataunen etxebizitza alokatzen da. 943180481.

errentan hartu

Mutil batek pisu bat alokatu nahi du Goierri inguruan. 685711303.

konpartitzeko

Neska bat behar da Bilboko San Inazio auzoan pisua elkarbanatzeko. Metro eta autobus geltokitik gertu. 943884305.

Urretxu, Zumarraga inguruan pisu konpartitu baten bila nabil ikasketa garairako. 652729563.

Lagun bat behar da errentako pisua elkarbanatzeko Ordizian. 943161835.

Gazte bat elkarbanatzeko pisu bila dabil Ordizia, Lazkao edo Beasain inguruan. 635207249.

PABILOIA

alokairua

Beasaingo Salbatoren 300 metro karratuko pabiloi ekipatua alokatzen da. Altuerarekin eta aparkalekuarekin. 662331550.

GARAJEAK

alokairuan

Garaje itxia alokatzen da Ordizian, Lukusin plazan. 615768977.

Beasaingo Igartzia auzoan 35 metro karratuko garajea alokatzen da. 600329197.

Beasainen, Nafarroa Etorbi-dean, garajea alokatzen da txoko txiki batekin. 699511901.

BESTELAKOAK

salgai

Orbea B&G Mountain Bike motako txirrindu bat saltzen da. Urtea baino gutxiago du eta oso egoera onean dago. 100 euro. 620135628.

Baxuarentzat amplifikadorea salgai, Pivi, Trace Elliot markakoa. 300 watio eta ia erabili gabea. 700 euro. Gauean deitu: 606653156.

Logela salgai. 1,50 metroko ohea, 2 gau-mahai, oheburua eta aparadorea ispilurekin. Egurrezkoa, oso egoera onean. 646048047.

Ur zisterna saltzen da, nahiko berria. 2500 litrokoa. 616537765.

Pale bat eta erdi bloke saltzen dira, kolore tostatuan. 670422051.

Ura berotzeko berogailua salgai dago. 943084682.

Ezkontza soinekoa salgai, 2005. denboraldikoa. Konpromezurik gabe deitu 18:00etatik aurrera. 687947913.

Bizikleta estatika bat saltzen da, merke-merke. 943884767.

Gas-gas trialeko motorra salgai. 95. urtekoa, egoera onean. Kaskoa, botak eta hainbat extra opari. 1200 euro (negotziagarria). 615746233.

Mendiko kubiartak salgai. Sahara Extreme 235/75 R15 motakoak. Bi astez bakarrik erabiliak. 180 euro. 615746233.

Alfonbra handia (kalitate onekoa) eta oherako koltxak oparitzen dira. Jokin Sarasola, 943450697.

HIZKUNTZA

eskaera

Jatorriz ingelesa den pertsona bat nahi da mintza praktikak egin ahal izateko. 615788542 (Nerea).

LURSAILAK

erosi

Goierri inguruan lursail bat erosiko nuke. 616698236 telefonora deitu.

Zeure etxea dekoratzeko biderik laburrena

ibai ondo
barne diseinua
dekorazioa

Garai berrietarako
ideia berriak

Katea 5, Antzizar auzoa
Tel.: 943 16 40 40
BEASAIN



Tel.:
943 887 048

Faxa:
943 882 801

Telleri z/g

ORMAIZTEGI

OSINALDE
KARROZERIA



kutxa

gizarte ekintza

IBILGAILUAK

salgai

Opel Astra Caravan autoa salgai. SS-BD matrikuladuna. Oso egoera onean. 5.500euro. 635722056.

Autokarabana Hymer integrala salgai. Urtebetekoa. 699511901.

Opel vectra 2.0 GT salgai. Aire egokituarekin, engantxearekin eta beste hainbat extrarekin. Egoera onean. 617128654.

Volkswagen furgoneta salgai. SS-BF matrikuladuna eta ekipatua. Oso egoera onean. 629489990.

Aprilia SR50 motorra salgai. Oso egoera onean. Prezio ona. 646535174.

ANIMALIAK

oparitzeko

Saueso txakurkumeak salgai. Axi. 696999128.

Txakurkume mestizoak oparitzen ditut. 619940982

salgai

Arraza txikiko oiloak eta oilarra salgai. Oso politak eta arrautza egile onak. Launa euron. 943888068.

LANA

eskaerak

Zaldibiako taberna batean zerbitzaria behar da egun osoko lana egiteko. Asteburuak jai. 652714413.

Aparejadore bat behar da, euskalduna eta Goierrikoa. Berehala lanean hasteko, esperimentzialaduna. 943161032.

Pertsona euskalduna behar da asteburuetan taberna batean barran lan egiteko. 943160205.

Zerbitzari bat behar da eguerdirako. 687609093.

Sukaldari bat behar da egun osoz Goierriin. 687609093.

Egun guztian zehar haur bat zaindu eta etxeko lanak egiteko emakume bat behar da. 943881302.

Goierriko taberna batean bi langile behar dira: zerbitzari bat eta platerak garbitzeko pertsona bat. 943887351.

Zerbitzari bat behar da asteburuatarako. 629160500 / 627122097.

Neska bat behar da Ordiziako taberna batean lan egiteko. Asteburuetan, igandea ezik. 605772623.

Ordiziako taberna batean zerbitzariak behar dira. Egun osoko kontratuarekin. 676965396.

Asteburuetan taberna batean lan egiteko pertsona bat behar da. 627122087 / 629160500.

Zerbitzari bat behar da urte osoan lan egiteko. Interesatuak 616698236 telefono zenbakira deitu.

eskaintzak

Haur hezkuntzako ikaslea prest dago Beasain inguruan klase partikularrak emateko 6-10 urte bitarteko umeei. 675005172.

Neska bat lan bila dabil etxeko lanak egiteko, eskarmentu handiarekin. 660837956 (goizez deitu).

Magisteritzan diplomatutako neska euskalduna klase partikularrak emateko prest dago. 696597878.

Adinekoak zaintzeko edo etxeak garbitzeko lan bila dabil emakume bat. Esperientziaduna. 618928759.

Etxeko lanak egiteko edo adinekoak zaintzeko prest dago emakume bat. 617769791.

Emakume bat eskaintzen da batez ere asteburuatarako sukaldari laguntzaile, dendari, garbiketari edo beste zerbaitean. 628930435.

Emakumea eskaintzen da gidabaimenarekin etxeko lanak egiteko orduka. 943889503 / 685714851.

Emakumea eskaintzen da etxeko lanak egiteko, hedade-tuak zaintzeko... 650940610.

27 urteko neska bat eskaintzen da goizez orduka haurrak zaintzeko edota etxea garbitzeko. Euskaraz badaki. 687374559.

Neska bat eskaintzen da arratsalde etxea garbitu eta haurrak zaintzeko. 652725929.

Adineko pertsonak zaintzeko goizeko 09:00etatik 16:00etara. Esperientzia daukat eta errespontsabilitatea ere bai. 616889923.

Esperientzia duen neska bat prest dago etxeko lanak egiteko edo adineko pertsonak zaintzeko. 620666221.

Mutila bat eskaintzen da erakuntzan peoi bezala lan egiteko. 685711303.

Debaldeko iragarkiak: 943 88 96 12 goierritarra@topagunea.com

ainarareteberria

HANKARA

podologia zentroa

Tel.: 943 887 946

Zelaeta-berri plaza,4 BEASAIN

Ikaskide

irakaskuntza zerbitzuak

Joan Iturralde, 5
solairuartera
943 160 120
Beasain

ikaskide@ikaskide.net
www.ikaskide.net

2005-2006 ikasturtea
Matrikula zabalik!

INFORMATIKA

- ✓ Tutorea
- ✓ Ordenadore bat ikasleko

INGELERA

- ✓ Azterketa ofizialak
- ✓ HE0, Trinity College, Cambridge

ESKOLA LAGUNTZA

- ✓ Lehen Hezkuntza
- ✓ DBH, Batxilergoa
- ✓ Unibertsitate-maila
- ✓ Goi/Erdi mailako zikloak

TAILERRAK

- ✓ Irakurmena/ulermena
- ✓ Arreta, konzentrazioa
- ✓ Ikasketa teknikak

Irakaskuntza mailako behar guztiei erantzuten dien zentru multidisziplinaria

ZEGAMA OKINDEGIA

Eskuz egindako ogi naturala

SALMENTA PUNTUAK:


Beasain: Zuhaizpe, Oskarbi, Osiña, Natxo dietetika. **Ordizia:** Garmendia, Sabino, Muñoz, Osasun eta Gorosti. **Lazkao:** Lasa, Viana eta Ainhua dietetika. **Ligorreta:** Dorronsoro. **Zegama:** Kooperatiba eta Maria Jesusen denda. **Segura:** Erosle. **Idiazabal:** Ahizpak. **Ormaiztegui:** Iñaki Erosle. **Zumarraga:** Rueda dendak. **Legazpi:** Jabi harategia, Izkuntza eta Patxo..

☎ 943 80 10 66 Intxausti eremua, 14G-14H nabeak **ZEGAMA**



Eskarabillako jaiak 1940-50 urteen artean

Aurten jada bigarren urtea da Ordiziako Eskarabilla auzoko jaiak berreskuratu dituztela. 25 urteetan zehar galduta egon dira eta berriro ere auzoa jai giroan murgildu dute. Argazkia 1940-50 urteen artekoa da.



SILVIA MIRAS CASASAYAS
ODONTOLOGOA



TEL./FAX: 943 88 92 87
SAN INAZIO KALEA, 2
20200 BEASAIN - (GIPUZKOA)

IDIAZABALGO GUARDI INDUSTRIAGUNEA



**SALGAI, ERRENTAN
eta ERRENTAN
EROSTEKO
AUKERAREKIN**

Industri pabilioiak 250 m²-tik

629 446 510



ondoeta

**GARAJE INDUSTRIA ETA FAMILIARTEKO
ETXEBIZITZETARAKO ATE METALIKOETAN
ESPEZIALDUA, ESKUZKOAK ETA AUTOMATIKOAK**

E-mail: ondoeta@ondoeta.com www.ondoeta.com

© 943 88 31 02 - 943 88 74 51 Faxes: 943 88 08 72

201 Industrialdea, 18. pabilioia OLABERRIA



SOLOZABAL AUTO-ESKOLA

**Mota guztietako gi-
da-baimenak**

Aita Urdaneta

ORDIZIA

☎ 943 88 72 76

Lan bertikalak S.L.

Tfnoa.: 605 712 018
Ezkurdiategi Etxea ATAUN

Kanaloiak

Bajanteak

Fatxadak

Pintura

Teilatuak

Tximiniak

...



BARANDIARAN
zeramikak

ERREF. MAK DISEINUAK PROIEKTUAK BAINUAK HIDROMASAJA

SEMPERE KALEA, 7, 1. LOKALA BEASAIN
TLFNO. 943 887972 - FAX 943 888657
e-mail : barandi@barandiaranzeramikak.com





Irabazteagatik,
gozatzeagatik,
partekatzeagatik,...
nahi duzunagatik

mugitzen zaituena
hura ala bestea
izanik ere
eutsi zaintzeari

www.antzizar.net
tel. 943 887900